

BEZEROAREKIKO HARREMANAK:

Gure bezeroarekiko harreman onak mantentzeko sei hilabetero bilera bat egitea proposatzen dugu. Modu honetan, bezeroak aldaketa bat nahi izatekotan edo arazo bat izatekotan bilera horretan argi dezake. Gure ustez, hau oso lagungarria eta beharrezkoa da bezeroa gure jokaerarekin ados egoteko eta pozik jarraitzeko.

Gure produktua ezagun bilatzeko, metodo hau erabiliko dugu:

- Beste enpresa batzuei gure produktuari buruz jakinarazteko, eta horrela gure produktuan interesa adieraz dezaten, Agenda 21ekin nolabaiteko kolaborazio egingo dugu.
- Gure ustez, institutuekin kontaktuan jartzen bagara eta gure produktuaren berri ematen badiegu, ikasleek gure produktua errazago ezagutuko dute. Hau lortzeko, institutu bakoitzaren Agenda 21eko arduradunarekin hitz egingo dugu. Geroago, eskuorriak banatuko ditugu ikasleen artean.

Azkenik, GKE bati (Greenpeace) karkasa zizelkatuen prezio diferentziaren kantitate bat eskainiko diogu. Horrela, boligrafo hauek erosten dituzten bezeroek plastikoaren murrizketan laguntzeaz aparte, diru kopuru bat GKE bati dohaintza emango diete.

